

# Kultura Auzolanean planaren jarraipen- txostena, 2014ko uztailetik abendura

2015eko urtarrilaren 21a

## Aurkibidea

1. Aurkezpena	3
2. Abiarazitako taldeak uztailetik abendura bitarte izandako bilerekin	4
2.1. Martxan jarritako proiektuen kopurua eta bilera kopurua	4
2.2. Uztailetik abendura bitarteko proiektuen eta bileren edukien eta aurrerapenen taula orokorra	7

## 1. Aurkezpena

Dokumentu hau Kultura Auzolanean planaren garapenari dagokionez 2014ko uztailetik abendura bitarte egin den jarraipen orokorrari buruzko txostena da, eta Kulturaren Euskal Kontseiluaren 2014ko ekainaren 25eko bileran Kultura Auzolanean publikoki abiarazi zenez geroztik, hau da egiten den lehen txostena.

Txosten hau sei hilean behin egingo da jarraipen orokorreko txosten gisa, eta kasu honetan, honako alderdi hauei buruzko informazioa aurkeztuko da:

- ✓ **Martxan jarritako proiektuen kopurua eta bilera kopurua.** Laburbilduta jaso da abiarazitako proiektuei eta bilerei buruzko informazioa, kronologikoki ordenatuta bilera-dataren arabera.
- ✓ **Uztailetik abendura bitarteko proiektuen eta bileren edukiak eta aurrerapenak.** Abiarazitako proiektu bakoitzaren garapenaren eta aurrerapenen egoerari buruzko informazio zehatzagoa, proiektuen abiaraztea eta aurreikusitako emaitzen arabera ordenatuta.

## 2.1. Martxan jarritako proiektuen kopurua eta bilera kopurua

### Kronologikoki antolatuta bilera-dataren arabera

- ✓ **2. Sormen Fabrikak programa optimizatzea eta garatzea** (2014an ekin zaie)
  - 3 bilera (uztailaren 11n, urriaren 13an eta azaroaren 17an).
- ✓ **4. Eredu eta finantzabideen azterketa eta eskaintza (laguntzen eta diru-laguntzen mapa orokorra barne)** (2014an ekin zaie)
  - bilera 1 (uztailaren 16an).
- ✓ **5. Kulturklik proiektuaren garapena, euskal kulturaren atari interaktiboa** (2014an ekin zaio)
  - bilera 1 (uztailaren 14an; harrezkero, lan-prozesua birtualki garatzen ari da).
- ✓ **15. Dokumentu eta Artxiboen Legea** (2014an ekin zaio)
  - bilera 1 (2014ko uztailaren 24an).
- ✓ **16. Euskal Liburutegi Digitala edo Elektronikoa. Online mailegu-plataforma garatzea** (2014an ekin zaio)
  - 2 bilera (uztailaren 24an eta azaroaren 20an).
- ✓ **9. Dantza Tradizionalaren Artxiboaren garapena** (2015ean ekingo zaio)
  - 2 bilera (urriaren 6an eta azaroaren 17an).

## 2.1. Martxan jarritako proiektuen kopurua eta bilera kopurua

- ✓ **6. Ohiturak eta kultura-kontsumoa sustatzea** (2014an ekin zaio)
  - bilera 1 (urriaren 15ean).
- ✓ **18. Museoen Sarea, zerbitzuak partekatzeko eta lankidetzak sustatzeko** (2015ean ekingo zaio)
  - bilera 1 (urriaren 22an).
- ✓ **20. Ondare Ez-materiala Babesteko Plana (inbentarioa). Ondare etnografikoa** (2015ean ekingo zaio)
  - bilera 1 (urriaren 31n).
- ✓ **7. Euskal Artearen emanaldien eta zabalkundearen hobekuntza** (2015ean ekingo zaio)
  - bilera 1 (azaroaren 5ean).
- ✓ **17. Irakurketa Publikoko Euskal Sarea osatu eta garatzea** (2014an ekin zaio)
  - bilera 1 (azaroaren 10ean).
- ✓ **13. Antzerki-esparruko diru-laguntza mapa berria egitea** (2014an ekin zaio)
  - bilera 1 (azaroaren 18an).

## 2.1. Martxan jarritako proiektuen kopurua eta bilera kopurua

- ✓ **12. Musika Bulegoaren sorkuntza** (2014an ekin zaio)
  - bilera 1 (azaroaren 19an).
  
- ✓ **14. SAREA ereduari buruzko hausnarketa estrategikoa eta egungo egoerara egokitzea** (2015ean ekingo zaio)
  - bilera 1 (azaroaren 21ean).
  
- ✓ **1. Kulturaren Euskal Behatokia bultzatzea jakintzaren erreferentzia gisa** (2014an ekin zaio)
  - Lana birtualki garatu da

*Guztira: 2014ko uztailetik abendura bitarte, 15 proiektu / talde abiarazi dira, 18 bilera eginez.*

*Martxan jarri diren talde hauetatik 10 proiektu 2014koak dira eta beste 5 2015erako aurreikusita zeudenak.*

## 2.2. Uztailetik abendura bitarteko proiektuen eta bileren edukiak eta aurrerapenak

Proiektuei 2014an ekin zaien edo 2105ean ekingo zaien arabera ordenatuta

2014an EKINDAKO PROIEKTUAK				
Proiektua	Bilera-data	Partaideak	Aurrerapenak	2015ko urtarrilerako aurreikusitako emaitzak
<b>1. Kulturaren Euskal Behatokia bultzatzea jakintzaren erreferentzia gisa</b>	Lan-prozesu birtuala		<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Kulturaren egoerari buruzko bi urtean behingo txostena lantzeko prozesuan</li> <li>✓ Jarraipen Batzordea eratzeko prozesuan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Jarraipen-batzordearen jarduerari buruzko txostena</li> <li>✓ Kulturaren egoerari buruzko txostena izateko adostutako dokumentua</li> </ul>
<b>2. Sormen Fabrikak programa optimizatzea eta garatzea</b>	2014-07-11	15/6	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Sormen Fabriken deialdiari buruzko txostena</li> <li>✓ Txostena eta Programa, oro har, eratzeko eta aztertzeke talde-lana</li> <li>✓ 2015erako modu mailakatuan esku hartzeko proposamena eta 2016rako proposamena lantzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Programaren bideragarritasuna eta egokitasuna proposatzeko dokumentua</li> </ul>
	2014-10-13	15/14		
	2014-11-17	15/8		
		<b>PARTAIDETZA</b> <b>PORTZENTAI OSOA:</b> <b>%62-a</b>		

## 2.2. Uztailetik abendura bitarteko proiektuen eta bileren edukiak eta aurrerapenak

### 2014an EKINDAKO PROIEKTUAK

Proiektua	Bilera-data	Partaideak	Aurrerapenak	2015ko urtarrilerako aurreikusitako emaitzak
<b>4. Eredu eta finantzabideen azterketa eta eskaintza (laguntzen eta diru-laguntzen mapa orokorra barne)</b>	2014-07-16	13/5	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Informazioa biltzeko txantiloia mapa adostea</li> <li>✓ Informazio-bilketa eta azterketa/ustiapena prozesuan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Laguntza-maparen dokumentua (2014ko abendua)</li> <li>✓ Aldaketei/bide berriei buruzko dokumentu erkatua</li> </ul>
<b>5. Kulturklik proiektuaren, hots, euskal kulturaren atari interaktiboaren garapena</b>	2014-07-14 (lana birtualki garatzen ari da)	7/4	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Agendarako eta agenteen direktoriorako lan-ildoan gaineko adostasuna</li> <li>✓ Atariaren 2015erako garapenari buruzko txostenaren proposamena eta kultura-sektoreko agenteen direktorioaren proposamena</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Atariaren garapen-txostena</li> <li>✓ Kultura-sektoreko agenteen katalogo irekia</li> </ul>
<b>6. Kultura-ohiturak eta kultura-kontsumoa sustatzea</b>	2014-10-15	17/15	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Proiektuaren helburuei buruzko adostasuna</li> <li>✓ Garapen-bidean dauden lan-ildoei eta eskaera abiarazteko programei buruzko informazioa ematea taldeari</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Eskaera abiarazteko programa proposatzeko dokumentua</li> </ul>



## 2.2. Uztailetik abendura bitarteko proiektuen eta bileren edukiak eta aurrerapenak

2014an EKINDAKO PROIEKTUAK				
Proiektua	Bilera-data	Partaideak	Aurrerapenak	2015ko urtarrilerako aurreikusitako emaitzak
12. Musika Bulegoaren sorkuntza	2014-11-19	14/14	✓ Elkartea eratzea	✓ EHMBE elkartea eratzeari buruzko txostena
13. Antzerki-esparruko diru-laguntza mapa berria egitea	2014-11-18	7/5	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Bi taldeak bateratzea erabaki da</li> <li>✓ Proiektuaren metodologiari eta helburuen gaineko adostasuna</li> <li>✓ 7 lan-ildo zehaztea 2015ean garatzeko</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Antzerkiko diru-laguntza mapa berriari buruzko proposamenaren dokumentua</li> <li>✓ SAREA 2015 proiektu-proposamenari buruzko dokumentua: kudeaketa eta funtzionamendua (2015eko iraila)</li> </ul>
14. SAREA ereduari buruzko hausnarketa estrategikoa eta egungo egoerara egokitzea	2014-11-21	9/6		

## 2.2. Uztailetik abendura bitarteko proiektuen eta bileren edukiak eta aurrerapenak

2014an EKINDAKO PROIEKTUAK				
Proiektua	Bilera-data	Partaidetza	Aurrerapenak	2015ko urtarrilerako aurreikusitako emaitzak
<b>15. Dokumentu eta Artxiboen Legea</b>	2014-07-24	10/8	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Aurreproiektuaren testuan eztabaidatzeko ildo nagusien inguruko adostasuna</li> <li>✓ Dokumentu eta Artxiboen Legearen proiektuari dagokion egutegiaren proposamena</li> </ul>	✓ Dokumentu eta Artxiboen Legearen aurreproiektuaren dokumentua
<b>16. Euskal Liburutegi Digitala edo Elektronikoa. Online mailegu-plataforma garatzea</b>	2014-07-24	10/7	✓ Taldeari informazioa ematea proiektuaren garapenari eta egoerari buruz	✓ Online mailegu-plataforma
	2014-11-20	11/8	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Taldeak erkatzeko agente gisa eta aholkulari gisa parte hartzeko bidea irekitzea</li> <li>✓ Plataforma martxan jartzea</li> </ul>	
<b>17. Irakurketa Publikoko Euskal Sarea osatu eta garatzea</b>	2014-11-10	14/8	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Liburutegiak sarean txertatzea prozesuan</li> <li>✓ Irakurketa Publikoko euskal Sarearen / Liburutegien zerbitzuak garatzeko aukeren azterketa</li> </ul>	✓ Prozesuaren garapenari buruzko txostena

## 2.2. Uztailetik abendura bitarteko proiektuen eta bileren edukiak eta aurrerapenak

2015ean EKITEKO PROIEKTUAK				
Proiektua	Bilera-data	Partaideak	Aurrerapenak	2015ko urtarrilerako aurreikusitako emaitzak
<b>5. Euskal Artearen emanaldien eta zabalkundearen hobekuntza</b>	2014-11-05	11/10	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Proiektuaren metodologiari eta helburuen gaineko adostasuna</li> <li>✓ Titulartasun publikoko museo, zentro eta guneen galde-sorta eta lagina zehaztea</li> <li>✓ Galde-sorta betetze-prozesuan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Euskal Artearen emanaldien eta zabalkundearen jardunbide egokien dokumentua (2015eko iraila)</li> </ul>
<b>9. Dantza Tradizionalaren Artxiboaren garapena</b>	2014-10-06 2014-11-17	11/10 11/13	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Funtsak biltzeko eta digitalizatzeko irizpide operatiboak definitzeko pertsonen eta erakundeen batzordea sortzea</li> <li>✓ 2015erako lan-proposamena zehaztuta eta operatibizazio-prozesuan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Lehenetsitako funtsei buruzko txostena (2015eko iraila)</li> </ul>
	<b>PARTAIDETZA PORTZENTAI OSOA: %85-a</b>			
<b>18. Museoen Sarea, zerbitzuak partekatze eta lankidetzaren sustatzeko</b>	2014-10-22	7/7	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Proiektuaren helburuen gaineko adostasuna</li> <li>✓ Museoen arteko lankidetzaren eredu azterketa prozesuan</li> <li>✓ 2015erako lan-proposamena lantze-prozesuan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Museoen arteko lankidetzaren bilakaerari buruzko txostena eta hobetzeko proposamenak (2015eko iraila)</li> </ul>

## 2.2. Uztailetik abendura bitarteko proiektuen eta bileren edukiak eta aurrerapenak

2015ean EKITEKO PROIEKTUAK				
Proiektua	Bilera-data	Partaidetza	Aurrerapenak	2015ko urtarrilerako aurreikusitako emaitzak
<b>20. Ondare Ez-materiala Babesteko Plana (inbentarioa). Ondare etnografikoa</b>	2014-10-31	5/5	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Proiektuaren helburuen gaineko adostasuna</li> <li>✓ Oinarrizko fitxa katalogafikoa zehaztea</li> <li>✓ Lurralde bakoitzeko informatzaileen iturriak eta inbentarioa egiteko metodologia posibleak identifikatzeko eta erkatzeko fasean</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ondare etnografikoaren metodologia-proposamenaren diseinua (2015eko iraila)</li> </ul>